

Balorezko proposamena:

Gure aplikazioaren bidez salmentan dagoen edozein produktu eskura izan dezakegu. Kontsumitzaileak buruan duten produktua bilatzen dute aplikazio honetan eta aplikazio honek momentuan esaten dio ea non saltzen den produktua. Eta ez hori bakarrik, produktu bera saltzen duten denden artean, ekonomikoki preziorik onena eta kalitaterik onena duten dendak agertzen dira, hau da, aplikazioan lehena agertzen dena da prezio/kalitaterik onena duena da.

Lehiakideengandik bereizten gaituena: -Berritasuna: Ez da beste salmenta aplikazioak bezalakoa. Antzekoak diren beste aplikazioetan online erosketa da, eta aplikazio haien bidez katalogo bat dago eta nahi dutena erosten dute. -Lana erraztea: Aplikazio hau bereizten duena da lana errazten diola kontsumitzaileei, hau da, buruan duten produktua nonahi aurkituko dute. -Prestazioak: Produktua saltzen duten dendetara nola ailegatu azaltzen du, gainera zein garraio publiko komeni zaizun esaten dizu. -Pertsonalizazioa: Saltokiaren erradioa alda dezakezu, zure etxetik gertuago dagoen (erradio txikiagoa) edo urrunago (erradio handiagoa) dagoen aukeratu. Handiagoa jartzen baduzu, denda gehiago egongo dira, produktua errazago aurkituz.